

2025 MEMORIA

2025 urtean, 2024ean hasi genuen Estrategia berriaren abaroan aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu.

Fundazioan eraldaketa-prozesu sakon bat eramaten ari gara aurrera, eta 2024. urtean egindako egitura-egokitzapenen ondoren, 2025. urtean egiteko modu berriak garatu ahal izan ditugu.

Xede bakarrarekin lan egiten ari gara, gure gizartearekiko konpromisoa indartuz, non gure lanaren muinean jartzen dugun gizarte bidezko, inklusibo eta kohesionatuago baterantz joateko dugun eraldaketarako eragile-funtzioa.

Aldi berean, **governantza-eredu** berria garatzen ari gara; gardentasuna, parte-hartzea eta prozesu eta helburuen baitako kudeaketan oinarritutakoa. Helburu du gure Misioa betetzeko antolakuntza egokia lortzea.

Gizartearekiko dugun lekua ere indartzen ari gara; gure lana hobeto ezagutarazteko pauso nabarmenak eman ditugu, gure irudia eguneratuz, gardentasuna bermatzen duen webgune berria argitaratuz eta komunitateetako sareak sendotzeko harremanak bultzatuz. 2026. urtean urrats garrantzitsua emango dugu, azken bi urteotan garatu dugun gure marka berriaren aurkezpenarekin.

Prozesuka lan egiteak gure bi lan-ildo nagusien garapena indartzen du:

- **Eraldaketa komunitarioa** sustatzea: komunitateetako lanketak egiten ari gara, tokian tokiko gure lantaldeen koordinazioa sustatuz eta bertako eragileekin ditugun sareak indartuz. Kultura, ingurumena, hezkuntza, kirola, merkataritza... arlo ezberdinetako eragileekin elkarlanean.
- **Zaurgarritasun-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen** akonpainamendua: prozesu bakarra sortu dugu inklusiorako gizarte zerbitzuak, formakuntza eta laneratzea arloekin, pertsonen beraien gizareratzean ahalik akonpainamendu onena egin ahal izateko.

Eta azkenik, **Fundazioaren jasagarritasunaren** erronkaren aurrean, lan-arlo bakoitzerako funtsezkoak ditugun beharrak identifikatu ditugu eta horietan lanean dihardugu.

Fundazioko lantaldearen esfortzua funtsezkoa da elkarrekin egiten ari garen bide honetan aurrerapausoak emateko. Beraz, eskerrik beroenak zuei ere.

Eskerrik asko, halaber, **gure inguruko eragile guztiei,** gurekin bat egiteagatik, gizarte bidezko, inklusibo eta kohesionatu baterantz joateko elkarrekin egiten ari garen bideagatik.

Ilusioz ekingo diogu 2026 urteari 2025ko aurrerapausoek hauspotuta!

Aurkibidea

1.	Gure Misioa	6
2.	Gidatzen gaituzten printzipioak	8
3.	Jarduketa-eremuak	10
	3.1. Eraldaketa komunitarioa	12
	- Hezkuntza	
	- Kultura	
	- Kirola	
	- Kontsumo arduratsua	
	- Ingurumena	
	- Parte-hartzea	
	- Euskara	
	3.2. Inklusiorako laguntza	32
	- Inklusiorako gizarte-zerbitzuak	
	- Enplegurako prestakuntza	
	- Laneratze-enpresetako gizarte- eta lan-ibilbideak	
4.	Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak	58
5.	Beste prozesu estrategiko batzuk	60
	5.1. Euskara	
	5.2. Berdintasuna	
6.	Komunikazioa eta sentsibilizazioa	62
7.	Pertsonak eta sareak	66
	- Organigrama	
	- Sareak eta aliantzak	



Gure Misioa

MISIOA

Komunitatea eraldatzea bultzatzen dugu, herritarren pentsamendu kritikoa sustatzen duten sareko prozesuak eta proiektuak aktibatuz, **ingurune sozial, kultural eta ekonomiko bidezkoagoa, inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzen laguntzeko**, pertsona guztiak eta ingurumena zainduko dituen.

Gainera, zaugarritasun- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen laguntzen diegu beren sozializazio-prozesuan; horretarako, gizarteratzeko gizarte-zerbitzuak erabiltzen ditugu, eta ekonomia zirkularraren bidez, gaitzeko eta gizarte- eta lan-arloko laguntza ematen dugu, pertsona horiek lan-merkatu normalizatuan sar daitezzen eta gizarteak arlo horretan aurrera egin dezan.

NOLA?

Eraldaketa-espinala osatzen duten mailak azpimarratu nahi ditugu: plano pertsonala, harremani dagokiena (komunitarioa) eta egiturazkoa.

Maila horietako bakoitzetik igarota, denboran iraungo duten eta benetako gizarte-eraldaketa ekarriko duten aldaketak sustatzeko gai izango gara.

Gidatzen gaituzten printzipioak

Lankidetz

eta sareko lana.

Ikuspegi globala

Erronka eta larrialdi globalei tokitik bertatik erantzuteko.

Komunitateari ekarpena egitea

eta gizarte-erantzukizuna, gure lanaren ardatz.

Berrikuntza

aldaketaren eragile eta eraginaren anplifikadore.

Gardentasuna

egiten dugun guztian, bai barruan, bai kanpoan.

Pertsonen garapena eta konpromisoa

ezagutzaren transferentziaren eta etengabeko prestakuntzaren bidez.

Auto-ekintzaitza

balioa emango duten soluzio berriak sortzeko.

Ingurumenaren zaintza

inpaktua murriztuz eta eragiten duguna konpentsatuz.

Inklusioa eta aniztasuna

bazterketaren edo diskriminazioaren edozein aztarna desagerrarazteko.

Berdintasuna eta ekitatea

desberdintasunen aurrean.

Etika


Zintotasunez, ekitatez, erantzukizunez eta errespetuz jokatzeko, printzipio etiko profesionalak gidatuta.

Giza eskubideen defentsa eta sustapena

gure lanaren oinarri.

3

Jarduketa-eremuak



Eraldaketa komunitarioa



Etapa berri honetan, **eraldaketa komunitarioa Fundazioaren jardueraren erdigunean kokatzen da.** Gure helburua da gizarte kohesionatuago, bidezkoago, inklusiboago eta iraunkorrago baterako begirada aldatzea, sarean lan eginda lagunduz. Horretarako, lankidetzaz-prozesuak eta -proiektuak bultzatzen ditugu kultura, hezkuntza, kirola, inklusioa, ingurumena, ekonomia eta halako esparruetan. Lurraldeko administrazio publikoekin, gizarte-eragileekin, enprekin eta erakundeekin batera egiten dugu hori, bizileku ditugun komunitateen erronkei erantzun integratuak emanez, **ikuspegi globalarekin eta tokiko arloan oinarritutako ekintzarekin.**

Gaur egun, gizarte-inklusioa eta ingurumen-jasangarritasuna —gure Misioaren ardatzak hasieratik— komunitate bakoitzaren potentziala aitortzen duten prozesu eraldatzaileetan elkartzen dira. Esparru horretan, aldaketa kolektiboaren eragile aktibo gisa jokatzeko dugu, parte hartzeko, hausnartzeko eta elkarrekin eraikitzeko espazioak sortuz.

Lan hori dagoeneko presente gauden komunitateetan gauzatzen dugu: Arrasate, Beasain, Donostia, Errenteria, Hernani, Irun, Pasaia, Urnieta, Zarautz, Gamiz eta Derio. Leku horietan guztietan pertsonak, beharrak eta aukerak lotzen dituzten sareak ehuntzen ditugu. Horrela, **pertsonei lagun egitearen eta dinamika komunitarioen artean zubiak eraiki nahi ditugu, ingurune bizigarriagoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak sustatzeko.**

ERRONKAK

Proiektuetatik prozesu iraunkorretara igarotzea, hasitako ekintzei jarraipena emateko eta haien inpaktua areagotzeko.

Egungo erronken aurrean alternatibak proposatzea, gizarte zuzenagoa, bidezkoagoa, kohesionatuagoa eta iraunkorragoa eraikitzen laguntzeko helburuarekin.


Egiturazko desberdintasunei erantzutea begirada intersektorialetik.

Herritarrak kritikoak eta erantzukideak izan daitezen sustatzea, aldaketa-eragile gisa.

Esku hartzeko politikak eta eremuak gehiago egituratzeko bidean aurrera egitea, sareko lanaren bidez, erantzun eraginkorragoa eta eraldatzaileagoa lortzeko bide gisa.

Komunitateko bizitzan pertsona guztien parte-hartze aktiboa bultzatzea.

Komunitateko eraikitzea.



PRESENTZIA UDALERRIETAN

GIPUZKOA
udalerrri guztien % 62

BIZKAIA
Bilbo, Derio, Gamiz,
Leioa, Mungia

GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN EGINDAKO EKINTZAK

4 sentsibilizazio-kanpaina (inklusioa- ekonomia zirkularra)
836.000 pertsonarengana iritsi ginen

6 kanpaina espezifiko Unibertsitatean (erakusketak, truke-merkatuak).
46.000 pertsonarengana iritsi ginen

33 proiektu eraldatzaile, beste erakunde batzuekin lankidetzan

Hezkuntza: 9	Ingurumena: 6
Kultura: 4	Kontsumo kontzientea: 5
Parte-hartze komunitarioa: 6	Kirola: 3

PROIEKTU NABARMENAK

Ondoren, **2025ean zehar jarduera komunitarioan egindako proiektu batzuk** aurkezten dira.


62 aliantza aktibo beste erakunde batzuekin

4 argitalpen
4 lankidetzako ekosistema Unibertsitatearen eta gizartearen artean

BIRSORTU

Birsortuk berrerabilera eta ekonomia zirkularra sustatzen ditu gizartea eta hezkuntza eraldatzeko tresna gisa. Proiektuak lurraldeko enpresek eta erakundeek baztertutako materialak berreskuratzen ditu, baliabide erabilgarri bihurtzeko prozesu pedagogiko, kultural eta komunitarioetan.

Tailerren, dinamika parte-hartzaileen eta hezkuntza-jardueren bidez, modu praktikoan lantzen dira jasangarritasuna, kontsumo arduratsua eta berrerabilpena, "eginez ikastea" metodologian oinarritutako metodologia aktiboak sustatuz. Horrela, herritarrak sentsibilizatzen laguntzen du, eta espazioak sortzen kontsumo-eredu jasangarriagoen inguruan parte hartzeko, sormenerako eta hausnarketa kolektiborako.



EKOTOPIA

Ekotopiak eragile akademiko eta sozialen arteko lankidetzako prozesuak bultzatzen ditu, larrialdi klimatikoaren, desberdintasun sozialen edo pentsamendu kritikoaren galeraren aurrean unibertsitate publikoak duen zeregin eraldatzailea indartzeko. Proiektuak lurraldearekin lotura handiagoa duen eta justizia klimatikoarekin konprometitua dagoen unibertsitate bat sustatzen du, giza eskubideen ikuspegitik, ikuspegi feministatik eta begirada intersektorialetik.

Metodologia parte-hartzaileen eta elkarrizketa-espazioen bidez, ikasleek, irakasleek eta gizarte-erakundeek, denek batera, ezagutza eta praktika eraldatzaileak sortzen dituzte, eta unibertsitatearen eta komunitatearen arteko lotura sendotzen. Proiektuak zenbait tresna sustatzen ditu, hala nola ikaskuntza-zerbitzua metodologia, ikerketa parte-hartzailea edo jakintzaren ekologia, herritar kritikoak sortzen laguntzeko, bizitzaren jasangarritasunarekin eta guztion ongiarekin konprometitutako herritarrak sortzen.



KULTURARTEA: ANIZTASUNETIK KULTURA SORTZEN

Kulturarteak gizartea sentsibilizatzeko eta eraldatzeko prozesuak bultzatzen ditu, artearen bidez eta esperientziak trukatzuz gizarte-zaingarritasuneko egoeran dauden pertsonen eta ikastetxetako ikasleen artean. Giza eskubideetan eta kultur aniztasunean oinarritutako ikuspegi batetik, proiektuak topaguneak sortzen ditu bizi-istorioak partekatzeko, gizarte-bazterketaren arrazoiei buruz hausnartzeko eta enpatia eta pentsamendu kritikoa sustatzeko.

Prozesu parte-hartzaile horietatik abiatuta, partekatutako esperientziak film labur autoekoitzi eta sorkuntza artistiko kolektibo bihurtzen dituzte ikasleek. Gainera, proiektuan parte-hartzaileen eta udalerriko kultur eragileen arteko topaketak ere badira, elkarrekin prozesuan zehar landutako bizipenekin lotutako musika piezak sortzeko. Lortutako lanak jendaurrean aurkezten dira Errenteriako Giza Eskubideen aldeko Jardunaldien barruan. Horren bidez, elkarrizketa komunitarioa bultzatzen da, eta agerian jartzen da lurraldean dagoen kultur aniztasuna.



AHOTSAK

Ahotsak sentsibilizazio- eta bizikidetzatza-prozesuak sustatzen ditu hezkuntza-komunitatean, bigarren hezkuntzako ikasleen eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen arteko topaketaren bidez. Proiektuak giza eskubideen ikuspegitik heltzen dio aporofobiari, elkarrizketarako eta hausnarketa kolektiborako espazioak sortzen ditu, begirada kritikoa sustatzeko gorroto-diskurtsoen eta desberdintasun sozialen aurrean.

Metodologia parte-hartzaileen eta kultura komunitarioko tresnen bidez —hala nola, podcast eta photovoice bidez— proiektuan parte hartzen dutenek baterako sorkuntza-prozesuetan jarduten dute esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko oinarrituta. Proiektuak komunikazio-, harreman- eta sormen-gaitasunak garatzen laguntzen du, eta, aldi berean, gazteen eta komunitatearen arteko lotura indartzen du. Sortutako materialak lurraldeari irekitako guneetan partekatzen dira, eta, hala, komunitatearen parte-hartzea eta gizarte inklusiboago eta kohesionatuago batekiko konpromisoa sustatzen da.



HAZIGUNEAK: ESKOLAK ERALDATZEN

Proiektuak eragile anitzeko prozesu pedagogiko bat bultzatzen du, hezkuntza-komunitateak eta gizarte-erakundeek gaitasun handiagoak izan ditzaten klima-aldaketari justizia klimatikoaren, giza eskubideen, feminismoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik heltzeko. Metodologia parte-hartzaileen eta hizkuntza kulturalen bidez, espazioak sustatzen dira hausnarketa kritikoa egiteko, ikaskuntza kolektiborako eta tokiko testuingurura egokitutako hezkuntza-tresnak elkarrekin sortzeko.

Prozesua Gipuzkoako zenbait ikastetxetan garatzen da, ikasleen, irakasleen eta gizarte-eragileen parte hartze aktiboa sustatzen duten ekintzako ikaskuntza-dinamiken bidez. Horrez gain, proiektuak ekintza komunitarioak, erakusketak eta sozializatorako espazio irekiak ere baditu, hezkuntza-komunitateak egungo erronka ekologiko eta sozialen aurrean gizarte-eraldaketarako eragile gisa duen zeregina indartzeko.



GIZARTE MUGIMENDUEN HERRI UNIBERTSITATEA (UPMS)

Proiektuak prestakuntza, hausnarketa eta ekintza kolektiboko prozesu bat bultzatzen du emakumeen eskubideen defentsarekin, biztanleria migratzailearen inklusioarekin, ingurumenaren jasangarritasunarekin eta ekonomia eraldatzaile feministekin konprometitutako gizarte-eragileen eta komunitate akademikoaren gaitasunak indartzera bideratua. 2022an egindako Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitatean sortutako ondorioetatik abiatuta, ekimenak lagundu egin nahi du gizarte-eraldaketarekin eta justizia ekosozialarekin konpromiso handiagoa duen unibertsitate bat eraikitzen.

Ikaskuntzako eragile anitzeko espazioen, metodologia parte hartzaileen eta unibertsitatearen eta komunitatearen arteko lankidetzatza-prozesuen bidez, proiektuak aukera komunitarioak eta eraldatzaileak sortzea helburu duten ekosistemen sorrera sustatzen du. Era berean, sozializatzeko eta gizartearen eragiteko ekintzak bultzatzen ditu unibertsitate barruan zein kanpoan, eta bultzatu egiten du pentsamendu kritikoa, parte-hartzea eta giza eskubideen defentsarekiko eta bizitzaren jasangarritasunarekiko konpromiso kolektiboa.



COP30

Proiektuaren barruan, “COP30 txiki bat unibertsitatean” ekimena ere bultzatu zen. Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera egin zen EHUko Filofofiako graduko Justizia eta Eskubideak XXI. Mendean irakasgaiaren barruan. Asanblada Komunitario Klimatiko baten simulazioa eginez, ikasleek gobernantza klimatikoari lotutako erronka etiko, sozial eta ekologikoak landu zituzten, metodologia parte-hartzaileak eta ikaskuntza esperientzialeko dinamikak erabiliz. Ekintzak pentsamendu kritikoa, enpatia, deliberazio kolektiboa eta justizia ekosozialarekin eta bizitzaren jasangarritasunarekin konprometitutako ikaskuntza komunitateen eraikuntza sustatu zituen.



HIRU(H)ARI

Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitatea proiektuaren amaierako ekitaldi moduan, eta Tabakalerarekin eta EHUrekin elkarlanean, HIRU(H)ARI —Pluribertsitatea, kultura eta komunitatea— topaketa egin zen, Donostian, 2025eko urriaren 9an eta 10ean. Eragile anitzeko espazio bat izan zen, eta aukera eman zuen elkarrekin hausnartzeko zer lotura dauden kulturaren, unibertsitatearen, ekintza komunitarioaren eta gizarte-eraldaketaren artean.

Hizketaldiak, elkarrizketarako espazioak eta dinamika kolaboratiboak izan ziren, eta kultur eragileak, gizarte-mugimenduak, unibertsitatea eta hirugarren sektorea bildu zituen, helburu argi batzuekin: ezagutzaren ekoizpen kolektiboko modu berriak esploratzea, aliantzak sendotzea, eta esparru partekatuak sortzea, gizarte-erronkei begirada demokratiko, feminista, interseksional eta komunitario batetik heltzeko.





III. NOMADA JAIALDIAREN LABURPEN-BIDEOA

NOMADA III: KULTURA, KOMUNITATEA ETA ERALDAKETA

Nomada: Kultura, komunitatea eta eraldaketa izeneko ekimenak prozesu komunitarioak bultzatzen ditu, kultura eta praktika artistikoak erabiltzeko partaidetzarako, kohesio sozialerako eta eraldaketa kolektiborako tresna gisa. Hirugarren edizioa azaroa eta Abendua bitartean egin zen Derion, Donostian eta Zarautzen, eta proiektuak, berriro, artisten, kultur eragileen eta adin, jatorri eta errealitate sozial desberdinetako pertsonen arteko topagune bihurtu zituen lurraldeko zenbait espazio.

Hainbat hilabetez landutako tailer, sormen-laborategi eta baterako sorkuntza-prozesuen bidez, parte-hartzaileek hainbat diziplina landu zituzten elkarrekin, hala nola collagea, podcasta, zinema, antzerkia, muralizazioa eta txotxongiloak. Hala, adierazpen, elkarrizketa eta eraikuntza komunitarioarako espazioak sortu zituzten. Jaialdi ibiltaria prozesu horiek itzultzeko eta taldean ospatzeko gunea izan zen, eta kulturak inklusiorako, aniztasunerako eta komunitate irekiagoak, parte-hartzaileagoak eta erresilienteagoak eraikitzeke tresna gisa duen zeregina indartu zuen.



KULTUR-LAB

Kulturako eta esku-hartze sozialeko profesionalen arteko topaguneak, helburua dutenak kultura komunitarioa indartzea, gizarteratzeko, parte hartzeko eta eraldaketa sozialerako tresna gisa.

ZUBIAK: ELKARRIZKETAK, KULTURA ETA KOMUNITATEA

Zubiak ekimenak gizartea sentsibilizatzeko eta komunitatean parte hartzeko prozesuak bultzatzen ditu, kultura eta hizkuntza artistikoak erabiliz, gizarteratzetari aurre egiteko, estigmak zalantzan jartzeko eta komunitate-loturak sendotzeko.

Sentsibilizazio kanpainen, mintegien, topaguneen eta prestakuntza-ekintzen bidez, proiektuak elkarrizketa, hausnarketa partekatua eta narratiba inklusibo berriak sortzea sustatu du, eragile sozial, kultural eta instituzionalekin elkarlanean jardunda.

Ikuspegi komunitario eta interseksionaletik, Zubiak programak kulturak gizartea eraldatzeko, herritarren partaidetzarako eta eragin kolektiborako tresna gisa duen zeregina indartzen laguntzen du.



DUINTASUN DOINUAK BIDEOKLIPA

DUINTASUN DOINUAK


2025eko Nomada Jaialdiaren barruan, Duintasun Doinuak bideoklipa egin zen: musika-sorkuntza kolektiboko prozesu bat, Gipuzkoan eta Bizkaian gizarteratzetako egoeran dauden pertsonen batera egindakoa. Proiektuak musika erabili zuen adierazpen, sentsibilizazio eta eraikuntza komunitarioarako tresna gisa.



HARIAK

Hariak proiektuak material birziklatuekin txotxongiloak sortzea erabiltzen du gizarteratzeko, parte hartzeko eta eraldaketa komunitarioarako tresna gisa. Sormen prozesu kolektiboen bidez, proiektuak espazioak bultzatzen ditu zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen beren autoestimua indartu ahal izateko, adierazpen-gaitasunak garatzeko eta komunitatearekin loturak sortzeko, ikuspegi parte-hartzaile eta inklusibo batetik.

Sorkuntza-tailerren bidez, kontakizunak eta kultura zabaltzeko ekintzak elkarrekin eginez, ekimenak ezin hobeto uztartzen ditu artea, jasangarritasuna eta hezkuntza komunitarioa, eta elkarrizketarako eta ikaskuntza kolektiborako espazioak sustatzen ditu, laguntzeko desberdintasunak zalantzan jartzen eta narratiba askotarikoagoak eta inklusiboagoak eraikitzen.



HARIAK - TOPIC ERAKUSKETA



ZUBIA KIROLA

ZUBIA KIROLA: KIROLA, INKLUSIOA ETA KOMUNITATEA

Zubia Kirolak proiektu komunitario gisa sendotzen jarraitzen du, kirola gizarteratzeko, ongizaterako eta kohesio sozialerako tresna moduan bultzatzen duen proiektu gisa, alegia. Lehen edizioa oso positiboa izan zen, eta bigarren fase honek erabiltzaileen eta ingurune komunitarioaren parte-hartzea eta inplikazioa indartu ditu.

Proiektua Irungo Zubia zentroko erabiltzaile-talde baten motibaziotik sortu zen, Chakib Lachgar lasterkariarekin izandako topaketa baten ondoren, hain zuzen ere, eta jarduera fisikoa eta kirol-jarduera egokituen programa finko bat du, ohitura osasungarriak, autoestimua, parte-hartze sozialak eta loturak sortzea sustatzeko.

Bidasoa Atletiko Taldearekin (BAT) astero entrenamenduak eginez, herri-lasterketetan parte hartuz eta hainbat talde-jardueratan parte hartuz, Zubia Kirolak zenbait balio sustatzen ditu, hala nola, berdintasuna, errespetua, lankidetzeta eta kide izatearen sentimendua, eta sendotu egin da komunitatean harrera eta eragin positibo handiko esperientzia gisa.



REALAREN ENTRENAMENDUA

REALAREN ENTRENAMENDUAK

Realarekiko lankidetzaren esparruan, inklusiorako gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek astero parte hartzen dute klubari lotutako entrenamenduetan eta jardueretan. Horren bidez, aukera ematen zaie lurraldeko bizitza komunitarioa eta harremanetako osatzen duten kirol-espazio eta esperientzietan parte hartzen.

Ekimenak kirola inklusiorako, parte hartzeko eta ongizaterako tresna gisa erabiltzen du, eta aukerak sortzen ditu elkartzeko, sozializatzeko eta gizarteko kide direla sentitzeko. Esperientzia horren bidez, "bizitza normalizatuko" dinamikak eskaini nahi zaizkie zaugarritasun-egoeran dauden pertsoneri, eta komunitatean duten parte hartzea indartu eta ingurune inklusiboagoak eta kohesionatuagoak sustatzen dira.



LANKIDETZA-HITZARMENAREN SINADURA

GIPUZKOA BASKET: KIROLA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Bigarren urtez jarraian, Gipuzkoa Basketekin lankidetzan jardun dugu kontsumo-ohitura jasangarriagoak sustatzeko eta berrerabilera sustatzeko kirol-arlotik eta komunitatetik.

Klubaren instalazioetan jarritako bilketa-dukiontzien bidez, klubeko langileek, kirolariek eta zaleek erabiltzen ez diren arropa eta objektuei bigarren bizitza bat ematen lagundu dute, eta Gipuzkoako ekonomia zirkularra indartzen ere bai.

Berrerabilera bultzatzeaz gain, kontsumo arduratsuko modu berriei buruz sensibilizatzeko balio izan du ekimenak, klubak gizartean duen errotzea eta eragiteko gaitasuna aprobetxatuz. Bildutako guztia Fundazioaren bigarren eskuko dendetara bideratu da.





DONOSTIATRUK

DONOSTIATRUK ekimenak, Donostian hilero egiten den bigarren eskuko hileko azoka txikiak, 17. urteurrena ospatu du aurren, eta erreferentziatzeko gune gisa finkatu da berrerabilera, hondakinen prebentzioa eta kontsumo arduratsua sustatzeko, dimentsio komunitario eta parte-hartzaile batetik.

Urtean zehar 11 azoka egin ziren, eta ehunka pertsona eta elkarte bildu ziren, arropa, liburu, jostailu, apaingarri eta eguneroko beste gauza batzuei bigarren bizitza bat emateko prest zeuden pertsonak eta elkarrekin. Kontsumo-ohitura jasangarriagoak sustatzeaz gain, ekimenak ekonomia zirkularra dinamizatzen laguntzen du, herritarrak sentibilizatzen ditu eta logistikari eta merkataritzari lotutako gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak sortzen.

Trukatutako eta saldutako objektuak berrerabiliz, ekimenak 31 tona CO₂ isurtzea saihestu du, proiektuaren ingurumen-inpaktu positiboa indartu du, eta Gipuzkoa sozialago eta zirkularrago bati egiten dion ekarpena sendotu.



MOZORROTRUK

Mozorrotruken bigarren edizioa izan zen Tabakalera, eta, hala, sendotu egin zen bigarren eskuko mozorroak eta osagarriak berrerabiliz inauteri jasangarriagoak, parte-hartzaileagoak eta inklusiboagoak sustatzea helburu duen ekimen gisa. Espazio hori mozorroak saldu, trukatu eta biltzeko gune izan zen, eta kontsumo modu berriak sustatu zituen, berrerabilpena, sormena eta lehendik dauden baliabideen aprobetxamendua oinarri hartuta.

Azoka txikiak gain, ekimenaren baitan ehungintzako konponketa- eta eraldatze-tailer irekiak ere egin ziren. Haietan, parte-hartzaileek aukera izan zuten beren mozorroak pertsonalizatzeko eta haiei bizitza berri bat emateko, sormena erabiliz eta lankidetzan oinarrituz. Hala, Mozorrotruken kontsumo arduratsuen eta ekonomia zirkularren inguruko sentibilizazioa indartu zuen, eta inauteriak, ospakizun herrikoi bat, ohitura jasangarriagoak eta komunitarioagoak sustatzeko aukera bihurtu zuen.



EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA MODA JASANGARRIKO TAILERRAK

Bigarren eskuko dendak topaketa komunitarioko gune bihurtzeko asmoz, 20 tailer egin ziren ekonomia zirkularri, berrerabilpenari eta moda jasangarriari buruz —upcyclinga, konponketa, estilismoa edo kolorimetria, besteak beste—. Tailer horien helburua zen dendetara publiko berriak hurbiltzea eta kontsumo-ohitura arduratsuek eta jasangarriagoak sustatzea.

Herritarrei irekitako jarduera horien bidez, dendek partaidetzarako, sentibilizaziorako eta ikaskuntza partekaturako espazio gisa duten zeregina indartu zuten, eta kontsumoarekin erlazionatzeko modu berriak sustatu zituzten, ikuspegi kontzienteago, sortzaileago eta zirkularrago batetik. Horrez gain, lurraldean gizarteratzeari eta ekonomia zirkularri lotuta lantzen diren gizarte- eta lan-ibilbideak ikusarazten ere lagundu zuen programak.






GK GREEN FASHION MODA JASANGARRIKO DESFILEA

Moda Jasangarriaren Desfilearen X. edizioan parte hartu izanak, balioan jarri zuen berriro ehunen berrerabilpena, ingurumena eta gizartea eraldatzeko tresna gisa. Oso-osorik bide publikoan bildutako eta dohaintzekin eta etxez etxeko bilketekin bidez jasotako jantziekin osatutako bilduma bat aurkeztu zen, erakusteko posible dela moda zirkularrak jasangarritasuna, sormena eta kalitate estetikoa konbinatzea.

Pasarelan aurkeztutako estilismoak lurraldean egiten den berrerabilpen-zirkuitu osotik —bilketa, tratamendua, eta salmenta bigarren eskuko dendetan— eramandakoak ziren, eta horrek agerian jartzen du zer eragin positibo duen ekonomia zirkularrak eta gizarteratzeari lotutako gizarte- eta lan-ibilbideek. Ekimenak, gainera, berretsi egin zuen posible dela moda kontsumitzeko beste modu bat, ehungintzako hondakinen aurrean begirada kontzienteagoa eta arduratsagoa bultzatuz eta kontsumo eredu jasangarriagoak eta inklusiboagoak sustatuz.



FICOPA - BIOTERRA: JASANGARRITASUNA ETA BIGARREN ESKUKO GAUZAK

Aurten ere Bioterran parte hartu dugu, jasangarritasunari eta bizi ohitura arduratsuei buruzko Gipuzkoako erreferentziako azoketako batean. Azoka horrek aukera ematen digu berrerabilera eta kontsumo kontzientea publiko berrietara hurbiltzeko, bigarren eskuko produktuak salduz, ehungintzakoak eta osagarriak, batez ere.

Edizio honetan, gainera, beste urrats bat eman nahi izan genuen gure proposamena aurkezteko moduan: gure bilketako kamioia salmenta- eta erakusketa-gune original bihurtu genuen. Ekimenak oso eragin handia izan zuen azokara bertaratuta zirengan, eta agerikoagoa eta ikusgarriagoa egin zuen gure parte hartzea.

Era berean, eta aurreko urteetan bezala, “Zero Zabor” hitzaldien espazio nagusia egokitzeaz arduratu ginen. Horretarako, berrerabilitako altzariak erabili genituen, agerian jartzeko berrerabilera-aukerak badirela espazio jasangarrien diseinuan eta muntaian ere.



BASQUE CIRCULAR SUMMIT: EKONOMIA ZIRKULARRA, BERRIKUNTZA ETA INKLUSIOA

Emaus Gizarte Fundazioak Basque Circular Summit 2025 ekimenean parte hartu zuen, Bilbon. Ekonomia zirkularrari buruzko Europako topaketa nagusietako bat da, eredu ekonomiko jasangarriagoak, berritzaileagoak eta inklusiboagoak bultzatzeko.

FORUMaren baitan, Fundazioak zenbait espaziotan hartu zuen parte: etxetresna elektrikoaren berrerabilerarekin, konponketa-eskubidearekin eta ekonomia sozialaren erronkekin lotutako espazioetan, eta ehungintzako hondakinen, hondakin handien eta TEEH hondakinen kudeaketan ekonomia sozialak dituen erronkekin lotutakoetan. Eta agerian jarri zuen zer balio duen lankidetzaren publiko-sozialak ingurumenean eta gizartearen eragina duten eredu zirkularrak eraikitzeke.

Gainera, Emaus Gizarte Fundazioak Soluzio Zirkularren EXPOan gizarteratzeko eta laneratzeko tailerren material birziklatuetatik abiatuta egindako hainbat produktu aurkeztu zituen, ikusarazteko ekodiseinua eta enplegu inklusiboa funtsezko ardatzak direla ekonomia zirkularrago eta bidezkoago baterantz aurrera egiteko.



BASQUE CIRCULAR SUMMIT, BILBO



GIPUZKOA

Ingurumena
Medioambiente



HONDARTZETAKO KANPAINA: HONDARTZA GARBIA, HONDARTZA BIZIA

“Hondartza garbia, hondartza bizia” kanpainak Gipuzkoako kostaldeko hainbat udalerriri zeharkatu zituen berriro udan, aisialdiko guneetan ohitura jasangarriagoak, arduratsuagoak eta inklusiboagoak sustatzeko. Hondarribian, Donostian, Orion, Zarautzen, Getarian, Zumaian, Deban eta Mutrikun tailerrak, hezkuntza-jarduerak eta dinamika parte-hartzaileak egin ziren, ingurumen-sentsibilizazioa eta kontsumo kontzientea sustatzeko, adin guztietako pertsonen artean.

Gauzateka material berrerabilgarrien doako mailegu-zerbitzuaz gain, edizio honetan hezkuntza-material berriak ere izan ziren, eta zenbait ekintza egin ziren baliabideak partekatzearen eta berrerabiltzearen eragin positiboa ikusarazteko. Horrela, kanpainak hondartzek ikaskuntza eta partaidetza komunitarioarako espazio gisa duten zeregina indartu zuen, ingurumen-jasangarritasuna, herritarren sentsibilizazioa eta inklusio soziala uztartuz.



UIK - EHU-REN UDAKO IKASTAROAK: MODA ETA JASANGARRITASUNA, EKONOMIA SOZIALAREN ETA ZIRKULARRAREN ERRONKAK EHUNGINTZAREN SEKTOREAN

Emaus Gizarte Fundazioak “Moda eta jasangarritasuna: ekonomia sozialaren eta zirkularraren erronkak ehungintzaren sektorean” ikastaroa antolatu zuen EHUren 2025eko Udako Ikastaroetan. Gogoetarako eta elkarriketarako gune bat izan zen, ehungintzaren industriari gizartearekin, ingurumenarekin eta araudiarekin lotuta dituen erronkei heltzeko.

Adituen aurkezpenak izan ziren, bisita bat egin zen Errenteriako ehunak tratatzeko plantara, eta dinamika parte-hartzaileak erabili ziren. Finean, ikastaroak profesionalak, administrazio publikoak, gizarte-erakundeak eta eragile espezializatuak bildu zituen, esperientziak partekatzeko eta ehungintzaren kudeaketa eredu jasangarriago, inklusiboago eta zirkularragoetan aurrera egiteko.

Ekimenak indartu egin zuen Emaus Gizarte Fundazioaren zeregina, ekonomia zirkularrari eta eraldaketa komunitarioari lotutako ezagutza transferitzeko, sareko lanerako eta berrikuntza sozialerako espazioak sustatzen dituen eragile gisa.



UIK, UDAKO IKASTAROAK, DONOSTIA



TRATAMENDU-PLANTA, URNIETA

HONDAKINAK PREBENITZEKO ASTEAK

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen barruan, Emaus Gizarte Fundazioak ekonomia zirkularraren inguruan sentsibilizatzeko eta sustatzeko hainbat ekimen antolatu eta horietan parte hartu zuen, lurraldeko beste zenbait erakunde eta eragilerek batera.

Hau izan zen Fundazioak bultzatutako ekintza nagusia: Kooperarekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren laguntzarekin, ate irekien jardunaldi batzuk antolatzea Urnietako tamaina handiko hondakinen eta TEEH hondakinen tratamendurako plantan. Ekimenean instituzioek, ekonomia zirkularraren arloko erakundeek eta ikastetxeek hartu zuten parte, eta aukera eman zuen ikusteko zer-nolako den berrerabilpen-prozesua, zer eragin positibo dituen ingurumenean hondakinen kudeaketak eta zer aukera eskaintzen dituen jarduera horrek gizarteratzeko eta laneratzeko.

Horrez gain, Emaus Gizarte Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako “GK Recycling” hezkuntza-karpan parte hartu zuen, ekonomia zirkularra eta jasangarritasuna herritarrengana hurbiltzeko, sentsibilizatorako eta ikaskuntza praktikoko jardueren bidez.



EKONOMIA ZIRKULARREKO KANPAINA UROLA KOSTAN: KONPONDU ETA BERRERABILI

“Zuk konpondu, zuk berrerabili” lelopean, Urola Kosta eskualdean sentsibilizazio-kanpaina komunitario bat egin zen, konponketa, berrerabilera eta kontsumo arduratsua sustatzeko, Aian, Getarian, Orion, Zarautzen eta Zumaian egindako tailer praktikoan eta bigarren eskuko merkatuen bidez.

Ekimenak ederki uztartu ziren berrerabilitako arropa eta osagarrien azokak eta ehunak eta tresna elektriko txikiak konpontzeko tailer irekiak. Hala, gune parte-hartzaileak sustatu ziren, herritarrek ikasteko, ezagutzak partekatzeko eta erabili eta botatzeko kontsumoaren aurrean alternatiba zehatzak esperimintatzeko. “Eginez ikas” metodologian oinarrituta, kanpainak ohitura jasangarriagoak indartzen eta ekonomia zirkularrak eta berrerabilera ingurumean, gizartean eta komunitatean duen balioa ikusarazten lagundu zuen.



EKONOMIA ZIRKULARREKO KANPAINA, GETARIA



ASTEKLIMA, HERNANI

KLIMAREN ETA ENERGIAREN ASTEA EUSKADIN. “JANTZI HERNANI”

Hernanin egindako Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearen barruan, “Jantzi Hernani” kanpaina egin zen, herritarrek modaren industriak ingurumenean duen inpaktuaz sentsibilizatzeko eta kontsumo-ohitura arduratsuagoak eta jasangarriagoak sustatzeko.

Kanpainaren programazioan, konponketa- eta autokonponketa-tailer praktikoak –jostintza, tresna elektriko txikien eta bizikleten konponketa eta altzarien zaharberritzea, adibidez— egiteaz gain, sentsibilizazio-ekintzak egin ziren espazio publikoan, berrerabilitako jantziak erakutsi baitziren zenbait udal-ekipamendutan. Jarduera horien bidez, kanpainak berrerabilera, hondakinen prebentzioa eta herritarren ahalduntzea sustatu zituen, ikuspegi parte-hartzaile eta komunitario batetik, ekonomia zirkularrarekiko eta trantsizio ekologikoarekiko konpromiso kolektiboa indartzeko.



PARTE-HARTZEA

ELKARBIDEAK

ElkarBideak programak gizarteratze eta partaidetza komunitarioko prozesuak bultzatzen ditu, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen sustatutako komunikabide komunitarioen bidez. Saioak jarraipena ematen die Uba Bidetik aldizkariari, Gipuzkoan, eta Ganbara Gizarte Irratiari, Bizkaian. Esperientzia horien bidez, adierazpenerako, ikaskuntza kolektiborako eta kontakizunen eraikuntza partekaturako espazioak sortzen dira.

Komunikazio komunitarioari lotutako tresnen bidez, proiektuak komunikazio-trebetasunak indartzen ditu, jakintzen trukea sustatzen du eta bizitza komunitarioan parte hartzen duten pertsonen parte-hartze aktiboa bultzatzen du. Gainera, Gizarte Komunikazioko Eskola txikia sortzeak aukera eman zuen prozesu horiek zabaltzeko, mikro-pilulen eta elkarrikaskuntzarako espazioen bidez, herritarren sentsibilizazioa indartzeko eta narratiba inklusiboagoak eta askotarikoagoak eraikitzeko.



ESPERIENTZIA ERALDATZAILEAK KOMUNITATEAN

BIDEGURUTZEAN II

BideGurutzean proiektuaren bigarren faseak jarraipena ematen dio erakundeen arteko lankidetzari. Izan ere, xedea da migratzaileekin lan egiten duten erakundeen, ingurumen-jasangarritasunari lotutakoan eta giza eskubideen defentsan jarduten duten erakundeen arteko lankidetzari sustatzea. Proiektuak zenbait espazio bultzatzen ditu askotariko gizarte-eragileen arteko topaketarako, elkarrekiko ikaskuntzarako eta eraikuntza kolektiborako, helburu honekin: komunitatean parte hartzeko eta lurralde-koheziarako modu berriak aztertzea.

Hainbat esperientzia komunitariotan lagunduz, ekimenak parte-hartze sozialeko prozesuak sustatzen ditu, kulturarteko ikuspegi jasangarri eta inklusibo batetik, sare eta dinamika kolaboratiboak sortzen laguntzeko, lurraldean bizikidetzari eta konpromiso komunitarioa indartu dadin.



HAZIGUNEAK: KULTURA KOMUNITARIOA ERALDAKETA EKOSOZIALERAKO

Haziguneak programak komunitate inklusiboagoak, jasangarriagoak eta feministagoak indartzea helburu duten prozesu komunitarioak bultzatzen ditu Bizkaian. Partaidetza aktiboa, herri-hezkuntza eta kultura komunitarioa sustatzen ditu, gizartea eraldatzeko tresna gisa.

Proiektuak prestakuntza-ekintzako prozesuak, hausnarketa partekatuko espazioak eta lurraldea artikulatzeko dinamikak erabiltzen ditu, norbanakoen gaitasunak eta gaitasun kolektiboak indartzeko giza eskubideak ikuspegi feminista, ekologista eta interseksionaletik sustatzeko eta defendatzeko. Ekimenaren helburua da herritartasun kritikoagoa eta erantzunkideagoa bultzatzea, komunitatearen, bizitzaren jasangarritasunaren eta parte-hartze sozialaren arteko loturak indartuz.

Ikuspegi horretatik, Haziguneak programak 2030 Agendarekin eta Giza Garapen Iraunkorarekin lerrokatutako aktibazio komunitarioko eta eragin pedagogikoko prozesuak sortzen laguntzen du, komunitate kohesionatuagoak, parte-hartzaileagoak eta justizia sozialarekin eta ingurumen-justiziarekin konprometituagoak bultzatzeko.



HAZIGUNEAK-EN LABURPEN-BIDEOA



ELKARTU: KOMUNITATE-SAREA EHUNTZEN BAKARDADEARI AURRE EGITEKO

Elkartu proiektuak gogoz kontrako bakardadeak prebenitzeko eta kulturaren, parte-hartzearen eta sorkuntza kolektiboaren bidez kohesio soziala indartzeko prozesu komunitarioak bultzatzen ditu Derion eta Txorierri eskualdean.

Proiektuak belaunaldien arteko eta kulturen arteko topaguneak sustatzen ditu zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen artean. Antzerkia eta musika baliatzen ditu, eta sorkuntza artistikoa material birziklatuak erabiliz, parte hartzea eta lotura komunitarioak eraikitzen errazteko tresna moduan.

Baterako sorkuntzako prozesuen emaitza gisa, kalejira komunitario bat egiten da Derioko herri-jaien barruan, eta horrek ekimenaren izaera inklusiboa eta parte-hartzailea indartzen ditu.



HAZI ETA GARATU: GARAPEN JASANGARRI KOMUNITARIOA ETA PERTSONA GUZTIEN INKLUSIO EMANTZIPATZAILEA SUSTATZEN

Proiektuak eraldaketa komunitarioko prozesuak bultzatzen ditu ingurumen-jasangarritasunaren eta inklusioaren inguruan, Derion herritarren parte-hartzea, sareko lana eta tokiko eragileen aktibazioa sustatzeko.

Kultura komunitarioko dinamikien, prozesu parte-hartzaileen eta belaunaldien arteko topaguneen bidez, ekimenak zenbait gauza landu ditu: narratiben eraikuntza kolektiboa, klima-aldaketari buruzko hausnarketa eta ikuspegi inklusibo eta eraldatzaile batetik lotura komunitarioak indartzea.

Proiektua amaitzeko, ikaskuntzak komunitateari itzultzeko eta sozializatzeko ekintzak egin dira; hala, lankidetzaren sareak sendotzen dira eta lurraldean bultzatutako prozesuek jarraipena izateko eta erreplikatzeko oinarriak ezartzen.

EUSKARA: PARTE-HARTZE ETA INKLUSIO KOMUNITARIOA

Aurten ere hainbat ekintza bultzatu ditugu gure zerbitzuetan parte hartzen duten pertsonen euskara hurbiltzeko, uste baitugu hizkuntza tresna egokia dela inklusiorako, parte hartzeko eta komunitatearekin konektatzeko.

Ekimen horien artean, asteroko euskara-eskolak nabarmentzen dira. Eskolek ikuspegi praktikoa eta irisgarria dute, hizkuntzaren eguneroko erabilera errazteko eta ingurune sozial eta kultureko kide izatearen sentimendua indartzeko. Era berean, Aieteko Euskara Taldearekin elkarlanean, Euskararen Egunari lotutako jarduera komunitarioetan parte hartzen jarraitzen dugu, kultura arteko topaketa, bizikidetzak eta partaidetza guneak sustatzeko.

Inklusioan laguntzea

3.2.1.

Pertsonen laguntzen diegu inklusiorako eta sozializatzeko prozesuan, gizarte-zerbitzuen, trebakuntzaren eta lan- eta gizarte-ibilbideen bidez, ekonomia zirkularraren esparruan.

Erreferenteak gara gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen esparruan, administrazioarekin batera lan eginez eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen balorazio- eta laguntza-zerbitzuak eskainiz. Horretarako, honako zerbitzu hauek ditugu: gaueko harrera eta eguneko arreta; laguntza eta bitartekaritza komunitarioko programak eta zerbitzuak; eta egoitza-zentroak eta etxebizitza lagunduak. Berrikuntzak egiten ditugu zerbitzu eta arreta-eredu berriak izateko, laguntza ikuspegi komunitario batetik hobetzeko.

Green skills-ekin lotutako gaitasun orokorrak eta espezifikoak garatzeko **prestakuntza eskaintzen dugu.**

Ekonomia zirkularraren bidez, laneratzeko aukerak sortzen dizkiegu lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen, ekonomia zirkularra bera sustatzen laguntzeaz gain. 46 laneratze-lanpostu sortu ditugu, eta, gurekin denbora batez aritu ondoren, inguruko enpresetan lanpostu bat lortzen laguntzen diegu.

Gizarte-zerbitzuak inklusiorako

3.2.1.

Hainbat administrazio publikorekin lankidetzan, programak eta zerbitzuak diseinatu eta kudeatzen ditugu, egoera ahulean eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen beren inklusio-prozesuan laguntzeko, inklusiorako gizarte-zerbitzuen bidez, pertsonaren garapena, integrazioa, herritartasun aktiboa eta ingurunean duen parte-hartzea ahalbidetzeko, eta, oro har, haien bizi-kalitatea hobetzeko.

ERRONKAK

Pertsonalizazio-printzipioetan oinarritutako arreta integratuko eredu batean aurrera egitea, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Egungo beharrak identifikatzea eta konplexutasunari erantzutea ahalbidetuko duten baliabideak edo metodologiak diseinatzea.

Tokiko laguntza-ekosistemen eta ekosistema komunitarioen eredia sustatzea eta garatzea.

Profesionalak zaintzea.



Eskaintzen ditugun zerbitzuak

GIZARTE-BAZTERKETAKO EGOERAK BALORATZEN ETA DIAGNOSTIKATZEN LAGUNTZEKO ZERBITZUA
Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Artatutako pertsonak guztira:

612 94 emakume
518 gizon

SEFAC: ESKUALDEKO FORU LAGUNTZA ZERBITZUA (BIDASOA, BURUNTZALDEA, DONOSTIA, OARSOALDEA, UROLA KOSTA)
Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Artatutako pertsonak guztira:

295 51 emakume
244 gizon

ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA
Errenteriako Udala

Artatutako pertsonak guztira:

68 29 emakume
39 gizon

+ Aldi baterako arretarako etxebizitzak

GAUEKO HARRERA-ZENTROAK:
Irungo Udala
- Zubia
Zarauzko Udala
- Etxetik

Artatutako pertsonak guztira:

1.686 111 emakume
1.575 gizon **2** zentro **39** plaza guztira

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA:
Irungo Udala
- Zubia

Artatutako pertsonak guztira:

1736 120 emakume
1616 gizon **50** plaza

GIZARTE-INKLUSIOKO BEHARREI ERANTZUTEKO EGUNEKO ZENTROAK
Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Donostia (Aiete)
- Irun
- Zarautz

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna
Bizkaiko Foru Aldundia:
- Derio (PAI Bitartean)

Artatutako pertsonak guztira:

91 22 emakume
69 gizon

4 zentro

56 plaza guztira

GIZARTE-BAZTERKETA AKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO EGOITZA-ZENTROAK
Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Donostia (Uba, Munto)
- Pasaia (Portuenea, Itsas-etxea)

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna
Bizkaiko Foru Aldundia:
- Gamiz (PAI Bitartean)

Artatutako pertsonak guztira:

201 90 emakume
111 gizon

5 zentro

110 plaza guztira

ETXEBIZITZA LAGUNDUAK

Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Arrasate
- Beasain
- Donostia
- Errenteria
- Idiazabal
- Zarautz

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna
Bizkaiko Foru Aldundia:
- Erandio

Artatutako pertsonak guztira:

52 20 emakume
32 gizon

12 etxebizitza **1** Habitat etxebizitza

40 plaza guztira

GIZARTERATZEKO BEHARREN ETA GAITASUNEN DIAGNOSTIKO KOLABORATIBOA

2025ean, diagnostiko kolaboratiboko prozesuak landu dira zenbait lurraldetan, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laguntza-beharrak aztertzeke, eta premia horiei erantzuteke dauden gaitasun eta aktibo komunitarioak identifikatzeko. Prozesu horien helburua da tokiko estrategiak diseinatzea, arreta integratuaren, lankidetzaren eta oinarri komunitarioaren ikuspegitik.

BURUNTZALDEA

Diagnostiko bat egin da eskualdean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak eskatuta, ezagutzaren oinarri partekatu bat sortzeko eta lurraldeko eragileen artean gizarteratzeko ekosistema baten artikulazioa bultzatzeko.

PASAIA

Udal-mailako diagnostiko bat egin da, Pasaiaiko Udalak sustatuta, tokiko errealitatea aztertzeke eta oinarriak ezartzeko gizarte- eta egoitza-bazterkeriari arreta emateko udal-estrategia diseinatzeko.



EMAITZA NAGUSIAK

Lurraldeetako eragileen hasierako mapa egitea

Gizarte-zerbitzuetako, sistema publikoetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako 52 profesionalak hartu dute parte

4 taldeko tailer dinamizatu dira tokiko eragileekin

23 elkarrizketa egin zaizkie gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsoneri

Informazioa bildu da profesionalentzako 35galdetegiren bidez

Enplegurako prestakuntza

Lanbidek egiaztatutako hiru prestakuntza-zentro ditugu Arrasaten, Donostian eta Irunen. Zentro horietan prestakuntza eskaintzen dugu, parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzeko helburu argiarekin, eta arreta jartzen dugu, edukiak eskuratzean ez ezik, hausnarketa pertsonalean, gizarteratzearekin eta laneratzearekin lotutako trebetasunak eta jarrerak garatzea ahalbidetuko duten gaitasunak eskuratzea eragin dezan.

ERRONKAK

Prestakuntza lan-merkatuaren eskari berrietara egokitzea.

Prestakuntza, laneratzea eta benetako enplegua uztartzea.

Enplegua lortzeko oztopo ugari dituzten profilen inklusioa sustatzea.

ERAGIN-ADIERAZLEAK

411 pertsona prestakuntza-prozesuan
126 emakume 285 gizon

65 pertsona lagundu dira laneratze-enpresetan
28 emakume 37 gizon

EGINDAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

LANBIDE - Langabetuen enplegurako prestakuntza 2025 – 2026

ARRASATE

- Enplegurako konpetentzia pertsonalak **(FCO007)**
- Konpetentzia digitalak **(FCOI0001OV)**
- 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurretiko funtsezko konpetentziak - Gaztelania, matematika eta informatika **(FCOV0005OV)**
- Aurreko prestakuntza, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurrekoa: instalazioen oinarrizko garbiketa-lanak **(SSCI0002OV)**

DONOSTIA

- Enplegurako konpetentzia pertsonalak **(FCO007)**
- Aurreko prestakuntza, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurrekoa: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza lanbide-arloa **(TCPF0001OV - FCO007)**
- Konpetentzia digitalak **(FCOI0001OV)**
- 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurretiko funtsezko konpetentziak **(FCOV0005OV)**

IRUN

- Jasangarritasunari buruzko sentsibilizazioa **(FCOA07)**
- Enplegarriatsunerako oinarrizko trebetasun soziolaboralak **(FCO00004OV)**
- Enplegurako konpetentzia pertsonalak **(FCO007)**
- Aurreko prestakuntza, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurrekoa: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza lanbide-arloa **(TCPF0001OV)**
- Konpetentzia digitalak **(FCOI0001OV)**
- Hizkuntzarik gabeko profesionaltasun-ziurtagirietarako 2. mailako funtsezko konpetentziak **(FCOV27)**
- 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurretiko funtsezko konpetentziak **(FCOV0005OV)**

LANBIDE - Proiektu bereziak

- Gainazalak eta altzariak garbitzea eraikinetan eta lokaletan **(O_SSCM0108)**

GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-IBILBIDE INTEGRAL PERTSONALIZATUEN ARRETA-EREDUA

Proiektuaren helburua da **Euskadin pertsona zaugarrien laneratzea hobetzea ibilbide integral eta pertsonalizatuen bidez, pertsonak ardatz hartuta eta ekonomiazirkularrarekin lotuta**. Gauregun, eskualdeko lau proba pilotu garatzen ari dira, hondakinen logistikan, tratamenduan eta merkaturatzean hiru prestakuntza-eta lan-ibilbide inplementatzen dituztenak, Lanbideren, tokiko erakundeen, hirugarren sektoreko eragileen eta enpresen arteko lankidetzak sustatuz.

Ereduak bost fase ditu: diagnostikoa, prestakuntza, plataforma digitala, erakundeen arteko koordinazioa eta komunikazioa. 120 parte-hartzaileetatik gutxienez 80k ibilbideak osatzea espero da, gizarteratze eta laneratze handiagoa lortzeko, erakundeen zatiketa murrizteko eta enplegu berdea bultzatzeko helburuarekin.



ELKAR-EKIN - LANEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Elkar-ekin lanean" enplegua eta gizarteratzea sustatzeko programa. Pertsonak gaitzeko eta haiei lagun egiteko programak dira, eskualdeko garapen-agentziekin eta eskualdeetako bakoitzean jarduten duten beste eragile batzuekin lankidetzan.

Bidasoa: Lankidetzak-proiektu bat da, Bidasoa bizirik sozietatearen eta Mendibil Elkarte Pedagogikoa, Irungo La Salle, Emaus Gizarte Fundazioa, Fundación Secretariado Gitano, Katea Legaia eta Bidasoa GBLHren artekoa, "Bidalan 25/26" proiektuan parte hartzen duten erakundeak diren aldetik. "Bidalan 25/26" proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Agencia de Desarrollo del Bidasoa SAK sinatu zuten «Elkar-EKIN Lanean» estrategiaren barruan.

- Merkataritzako jarduera osagarriak (CP)

Debagoiena: Debagoienako mankomunitatea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Miguel Altuna Lanbide Heziketa.

- Instalazio elektrikoak (Prestakuntza-modulua)



LANERATZE-ENPRESETAN ENPLEGU BERRIRA IGAROTZEKO ETA LAGUNTZEKO PROZESUETAN ESKU HARTZEA

Proiektuaren helburua da laguntzarako ekintza profesionalak sortzea, langileen enplegarritasuna hobetzen eta errazten duten alderdietan zentratuko direnak, gehienez 3 urtean lan-merkatu arruntean lanpostu bat lortzeko helburu argiarekin.

Proiektuan hiru helburu planteatzen ziren, pertsonen laneratze-prozesuetako esku-hartzearen eta laguntzaren oinarri izateko. Hauek dira:

1. helburua: Ibilbide individualizatuak pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera egin eta ezaugarri horietara egokitzea.

2. helburua: Parte-hartzaileen enplegu-aukerak hobetzea, eskualdeetako enpresa-ehunarekin harremanak sortuz, eta parte-hartzaileen kompetentziak, gaitasunak eta lehenetsunak benetako eskaintzari egokituz.

3. helburua: Enpresak sentsibilizatzea, laneratze-enpresetan lan egiten duten pertsonen potentzialaren eta talentuaren jakitun izan daitezten.

Emaitzak eta eraginak:
 - 45 pertsona artatu
 - 34 pertsonak jasatu dute prestakuntza, proiektuaren amaieran beren enplegarritasuna hobetzeko
 - 5 pertsonak enplegu bat lortu dute

Gizarte- eta lan-ibilbideak laneratze-enpresetan

Gizarteratzeko bi enpresa ditugu, eta horien helburu soziala da gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei gizareratzen eta laneratzen laguntzea. Kontratazio-aldian banakako jarraipena egiten da, eta, horrez gain, parte-hartzaileek funtsezko gaitasunak eta tresna praktikoak eskuratzen dituzte, lan-merkatuan sartzeko prestatzeko; horrela, profil kualifikatuak sortzen dira ekonomia zirkularrari lotutako hainbat sektoretan lan egiteko.

ERRONKAK

Birziklatzearen aurrean berrerabilpena sustatzea.

Baliabideak dimentsionatzea, Gipuzkoan fluxu horien kudeaketa egokia bermatzeko.

Inplementazio-prozesuan dauden araudietara eta arau-esparruetara egokitzea.

Digitalizazioa, trazabilitatea bermatzeko.

Ikerketa eta berrikuntza, berrerabilera-tasak handitzeko tratamendu-prozesuak optimizatzeke.

IBILBIDEEN JARDUKETA-EREMUAK

LOGISTIKA - BILKETAK

Gaur egun, **Gipuzkoako hiru mankomunitatetan jarduten dugu (Debagoiena, Tolosaldea eta Urola Kosta)**, 41 udalerritan, guztira. **Era berean, etxeko etxeko bilketa-zerbitzua eskaintzen dugu lurraldeko 22 udalerritan.** Horretarako, 10 kamioi eta furgoneta bat dauzkagu.

TRATAMENDUA

Hondakinak berrerabiltzeko behar bezala prestatzeko, alde zurretik tratamendu espezifikoa behar da hondakin mota bakoitzerako: ehunak, tamaina handiko hondakinak eta TEEH hondakinak. **Hiru tratamendu-instalazio ditugu: bi ABEE baten bidez kudeatzen dira Kooperarekin, Erreterian eta Urnietan; eta hirugarrena Arrasaten,** modu independentean kudeatzen duguna.

BIGARREN ESKUKO DENDAK

Bigarren eskuko 6 denda ditugu: Donostian (2), Irunen, Erreterian, Hernanin eta Arrasaten. Espazio horiek funtzio komertziala betetzeaz gain, topaleku eta prestakuntza eta dinamizazio komunitarioko leku gisa ere balio dute.

JOSKINTZA

Berrerabileran oinarritutako gure ikuspegiaren barruan, ehunen konponketak funtsezko lekua du. Joskintzari eta ***upcycling*-ari eskainitako ibilbide espezifikoa** bat dugu, ekonomia zirkularra sustatzen duena.

MANTENTZE-LANAK

EDE Fundazioarekin elkarlanean, eta Suspertu laneratze-enpresaren bidez, mantentze-lanetan laneratzeko ibilbide bat dugu, eta **pintura, elektrizitatea, zurgintza, iturgintza eta altzarien eta tresnen konpoketa txikiak** lantzen ditugu.

GARBIKETA

Hori ere **EDE Fundazioarekin elkarlanean egiten da, Suspertu laneratze-enpresaren bidez,** eta garbiketako laneratzeko ibilbide bat dugu, **ohiko eta ezohiko garbiketaz-zerbitzuak** ematen dituena.

IRTEERA PROFESIONALAK

Logistika: kamioi-gidaria eta banatzailea

Biltegia: eskorga-gidaria, enbalatzailea, etiketatzailea, langilea

Merkataritza: saltzailea, bezeroaren arreta,

kutxazaina, apal-betetzailea

Joskintza: jostuna, ehun-fabrikako langilea

Garbiketa: kristalaria, garbitzaileak

Mantentze-lanak: laguntzailea, langilea, muntatzailea, konpontzailea

Logistika Bilketak

2025. urtean, **bilketa hobetzean eta berrerabilpena handitzean** jarri dugu arreta, batez ere etxeko zerbitzuaren bidez, funtsezkoa baita bildutako materialaren kalitatea hobetzeko.

Horretarako, **10 kamioi eta furgoneta 1 ditugu.**



EREMU GEOGRAFIKOA

EREMU GEOGRAFIKOA

Mankomunitateak

Debagoiena

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati

Tolosaldea


Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegi, Alkiza, Amezketza, Andoain, Anoeta, Asteasu, Atzo, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Billabona, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Zirzurkil

Urola Kosta

Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia

Etxeko bilketak

Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Billabona, Donostia, Errenteria, Eskoriatza, Hendaia, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte, Lezo, Oiartzun, Orio, Oñati, Pasaia, Tolosa, Usurbil, Zarautz, Zizurkil



**41 udalerrri 3 mankomunitatetan
22 udalerritan etxeko bilketak**

IZANDAKO ERAGINA

ENPLEGU INKLUSIBOA


23 pertsona kontratatu dira laneratze-postuetan

INGURUMENA


2.359.955 kg bildu dira

- Aurreztutako ura **23.600.000 litro**
- Isuri ez den CO₂-a: **4.720.000 kg**

JASOTAKOA GUZTIRA:
2.359.955 kg



BERRERABILIA GUZTIRA:
831.945Kg



BILKETARI ETA BERRERABILERARI BURUZKO DATUAK

JASOTAKOA GUZTIRA: 2.359.955 kg

Ehunak: % 51,41
Tamaina handikoak: % 31,88
TEEH: % 16,71

BERRERABILIA GUZTIRA: 831.945Kg
Jasotakoaren % 35

Ehunak: % 77,40
Tamaina handikoak: % 19,55
TEEH: % 3,05

GUZTIRA	BILDUTAKOA	EHUNEKOA	BERRERABILITAKOA	EHUNEKOA
EHUNAK	1.213.275 Kg	% 51,41	643.956 Kg	% 77,40
TAMA. HANDIKOAK	752.303 kg	% 31,88	162.622 kg	% 19,55
TEEH	394.377 kg	% 16,71	25.367 kg	% 3,05



Tratamendua

Emaus Gizarte Fundazioaren eta Kooperaren arteko Aldi Baterako Enpresa Elkartek urtean 2.400 tona hondakin baino gehiago kudeatzen ditu (ehunak, tamaina handikoak eta TEEHak kontuan hartuta), **Erreterian eta Urnietan dauden 2 plantetan** (azpiegitura horiek, guztira, **4.000 m²** baino gehiago hartzen dituzte).

LORPEN NABARMENAK

- **Elkarrekin egindako eredu eraginkor eta erreplikagarri** bat abian jartzea.
- **Berrerabilpena** bultzatzea, ekoizpen- eta gizarte-ikuspegitik.
- Hondakinen tratamenduari lotutako **gizareratze- eta laneratze-ibilbideak** egiteko aukera gehiago.

IKASKUNTZAK ETA ERRONKAK

- Antolamendu-kulturen koordinazio operatiboa eta harmonizazioa.
- Gero eta zorrotzagoak diren zerga- eta administrazio-araudietara egokitzea.
- Industrializazioan aurrera egitea

IZANDAKO ERAGINA

ENPLEGU INKLUSIBOA

10 pertsona kontratatu dira laneratze-postuetan

INGURUMENA

1.569.235 kg tratatu dira

- Aurreztutako ura: 3.923.087.500 litro
- Isuri ez den CO₂-a: 3.923.087 Kg



Emaus Gizarte Fundazioa - Koopera ABEEaren aurkezpen-bideoa

Bigarren eskuko salmenta

Gaur egun, bigarren eskuko **sei denda** ditugu Gipuzkoan: Arrasaten, Donostian (2), Errenterian, Hernanin eta Irunen. **2025ean pauso garrantzitsu bat eman dugu gure denden sarea eraldatzeko eta posizionatzeko prozesuan.** Aldaketa hori 2024-2026 estrategia berriaren parte da, zeinak kontsumo arduratsuaren, ekonomia zirkularraren eta enplegu inklusiboaren sustapenean jartzen duen fokua, eta espazio horien berrikuntza integrala planteatzen duen, benetako topagune komunitario bihurtzeko.

Etapa berri honen esparruan, **gure dendak espazio bizidun gisa birpentsatu eta egokitzen ari gara, eta salmenta jarduera sozial, kultural eta hezigarriekin osatu nahi dugu:** tailerrak, hitzaldiak, erakusketak eta bestelako ekintzak. Horiek guztiek herritarren parte-hartzea bultzatzen dute eta kontsumo-eredu kontziente, bidezko eta jasangarri batekiko dugun konpromisoa indartzen dute.

Azken helburua da gure dendak lurraldeko ekonomia sozialeko eta zirkularreko erreferente moduan finkatzea, eta aukera gehiago ematea gizarte- eta lan-ibilbideetarako.

BIGARREN ESKUKO DENDAK

arropa, oinetakoak, bazarra, altzariak, brokantea, liburuak, jostailuak eta tresna elektriko eta elektronikoak (TEEH).



ARRASATE

Bidekurtzeta 2
1.000 m²



ERRENTERIA

Nafarroa hiribidea 25-27
275 m²



DONOSTIA I

Mendeurrenaren plaza, 3
400 m²



HERNANI

Latsunbe 10
658 m²



DONOSTIA II

Easo 81
332 m²



IRUN

Auzolan 44
900 m²

IZANDAKO ERAGINA

ENPLEGU INKLUSIBOA

23 pertsona kontratatu dira laneratze-postuetan

INGURUMENA

246.369 produktu berrerabili saldu ditugu

- Aurreztutako ura: 1.968.000 litro
- Isuri ez den CO₂-a: 4920 Kg

Joskintza

Emaus Gizarte Fundazioaren joskintza-lerroak hondakinak baliabide bihurtzen ditu, publizitate-olanak, azoketako moketak, erabiltzen ez diren industria-ehunak eta halako materialak berrerabiliz.

Joskintza-tailerrean, material horiek modako osagarri, bulegoko produktu eta *merchandising* pertsonalizatu bihurtzen dira, eta enplegu inklusiboa sortzen dute gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat.

Gainera, enpresei beren hondakinetatik abiatuta produktu pertsonalizatuak sortzeko aukera eskaintzen diegu, eta horrela jasangarritasuna, ekonomia zirkularra eta konpromiso soziala sustatzen ditugu.

IZANDAKO ERAGINA

ENPLEGU INKLUSIBOA

Pertsona bat kontratatu da laneratze-postu batean

INGURUMENA

1.830 kg material birziklatu da

- Aurreztutako ura: 718.092 litro
- Isuri ez den CO₂-a: 6661 Kg

EGINDAKO LANAK

San Sebastian Shops: 400 erosketa-poltsa egin dira publizitate-olanak berrerabiliz, tokiko merkatariari eta herritarrei banatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentua, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia eta Spanset: 1.200 poltsa birziklatu egin dira, zinemaldiko Zinemaldiko alfombra gorria erabiliz, egoera ahulean dauden pertsonari elikagaiak Elikagaien Bankuaren bidez banatzen laguntzeko.

Ihobe: 1.200 gai pertsonalizatu —estutxeak eta ogitartekoak eramateko kaxak— egin dira, publizitate-materiala erabiliz.

SPRI taldea: 300 estutxe egin dira, kanpainetan eta publizitate-euskarrietan erabilitako materialekin.

Beste zenbait erakunderen eskariei ere erantzun zaie. Esaterako: **Instituto Tecnocreativo, Gipuzkoa Basket, Nafarco, Eventokia, Arrasateko udala, Digitarte, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa (COMGI) eta Irizar.** Horietan guztietan, hondakinen berrerabilera eta enplegu inklusiboa izan dira ardatz.



Mantentze-lanak

Mantentze-lanen arloak oinarrizko zerbitzu bat eskaintzen du, erakunde publiko eta pribatuen ohiko beharrak asetzeko, bai eta etxeenak ere, konponketa txikien, hobekuntza-jardueren eta arreta orokorreko zerbitzuen bidez. Esku-hartze horiek, askotan, ohiko zirkuituetatik kanpo geratzen dira.

Jarduera horren bidez, oinarrizko mantentze lanei eta laguntza teknikoari lotutako gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak sortzen dira, eta parte hartzen dutenei trebetasun praktikoak eskuratzen eta enplegarritasuna hobetzen laguntzen zaie.

Mantentze-kontratuen zati bat Konpongi markaren pean egiten da. EDE Fundazioaren eta Suspertu gizarteratze-enpresaren arteko lankidetzaren ondorioz sortu zen, eta horrek erakusten du zer indar duen sareko lanak eta lurraldeko erakundeen arteko lankidetzak.

BEZEROAK:

- Agifes
- Atzegi
- Hurkoa
- Kolore Guztiak

IZANDAKO ERAGINA

ENPLEGU INKLUSIBOA

2 pertsona kontratatu dira laneratzeko-postuetan



Garbiketa

Garbiketa-ibilbideak prestakuntza praktikoa eskaintzen du, ohiko eta ezohiko garbiketa-zerbitzuetan lan egiteko.

Laneratzeko gure enpresan egindako jardueraren bidez, parte-hartzaileek gaitasun profesionalak eskuratzen dituzte garbiketa orokorretan, aldizkako garbiketa programatuetan eta eskaripeko zerbitzuetan. Eta, hala, enplegu-aukera zabalak dituen sektore batean gaitzen dira, eta errazagoa dute lan-merkatu horretan sartzea.

Jarduerak erakunde publiko eta pribatuen mantentze-eta garbiketa-beharrei erantzuten die, eta zerbitzu puntualak nahiz aldian behin errepikatzen direnak ematen ditu.

Azken aldian, arlo horrek bere jarduera sendotzen jarraitu du, eta zabaldu egin du bere lankidetzaren sarea. Horrez gain, harreman egonkorrak ditu erakunde hauekin:

BEZEROAK:

- Gurutze gorria
- EDE Fundazioa
- Hirube

IZANDAKO ERAGINA

ENPLEGU INKLUSIBOA

3 pertsona kontratatu dira laneratze-postuetan



Berrikuntza eta ikerketa proiektuak



Konpromiso sendoa dugu berrikuntzarekin eta etengabeko hobekuntzarekin, eta aktiboki parte hartzen dugu berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan.

2025ean, 7 proiektu nabarmen garatu ditugu Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko mailan, funtsezko arlo hauetan egiten dugun lana sendotzeko:

GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-IBILBIDE INTEGRAL PERTSONALIZATUEN ARRETA- EREDUA

Proiektuaren helburua da **Euskadin pertsona zaugarrien laneratzea hobetzea ibilbide integral eta pertsonalizatuen bidez, pertsonak ardatz hartuta eta ekonomia zirkularrarekin lotuta**. Gauregun, eskualdeko lau proba pilotu garatzen ari dira, hondakin logistika, tratamenduan eta merkaturatzean hiru prestakuntza- eta lan-ibilbide inplementatzen dituztenak, Lanbideren, tokiko erakundeen, hirugarren sektoreko eragileen eta enpresen arteko lankidetzak sustatuz.

Ereduak bost fase ditu: diagnostikoa, prestakuntza, plataforma digitala, erakundeen arteko koordinazioa eta komunikazioa.

2025ean zehar, 131 pertsonak parte hartu dute guztira, 71 gizonek eta 60 emakumek. Gizarte- eta laneratze-ibilbideak prestakuntza-ekintzekin osatu dituzte. Horietako bostek lan-esperientzia ere izan dute, bost hilekoa, lanpostuan konpetentziak hobetzeko.



EHUNA ETA TEEH BERRERABILTZeko ZENTROAK

Proiektuak ekonomia zirkularra bultzatzen du Euskadin, ehun-hondakinak eta tresna elektriko eta elektronikoak (TEEH) bilduz, tratatuz eta merkaturatuz, bi helbururekin: **hondakin Europako araudia betetzea eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat kalitatezko enplegua sortzea**. Sektorean dugun urteetako esperientziatik abiatuta, gaitasun operatiboa handitzea, digitalizazioa, ekipamenduko inbertsioa eta prestakuntza espezializatua uztartzen dituen plan bat diseinatu dugu. Prozesua hiru fasetan garatzen da (diseinua, proba pilotua eta eskala handiko ezarpena), eta, gainera, herritarren sentsibilizaziorako eta hondakin trazabilitaterako zeharkako estrategia bat ere txertatzen du. Hala, oso kutsagarriak diren sektoreen **ingurumen-inpaktua** murriztu nahi da, hala nola ehungintzarena, eta TEEHen hazkunde esponenzialari erantzun, **bai eta tokiko ikuspegitik aukera ekonomiko eta sozial berriak sortu ere**.



Proiektu horiei eta beste batzuei buruzko informazio gehiago gure webguneko "proiektuak" atalean

www.emaus.com

SMARTEKO

Produktuaren Pasaporte Digitalak sortzea ahalbidetuko duten plataforma digitalak garatzen ditu, datuak modu egituratu eta seguruan biltzeko, balio-katean zeharreko trazabilitatea egiteko eta jasangarritasun-adierazleak kalkulatzeko. Europako araudiei aurrea hartu eta onurak sortu nahi ditu, hala nola ekodiseinua hobetzea, materialen eta energiaren eraginkortasuna hobetzea eta aukera zirkular berriak sortzea.



CORTEX

Ehungintzako ekodiseinua bultzatzen du, material jasangarri berrien garapen experimentalaren bidez. Hari termofusible bio-oinarrituak eta itsasgarri itzulgarriak erabiltzen ditu, jantzien osagaiak bereiztea eta berrerabiltzea ahalbidetzen dutenak, errazago birziklatzeko. Proiektuak barne hartzen ditu materialen diseinua, "eskaeraren arabera" bereizteko protokoloak, bideragarritasun industriala eta ingurune errealean baliozkotzea.



EKOMATCH, HONDAKINEN MATCHMAKING ADIMENTSUA

Ikerketa industrialeko proiektua da, Euskadin ekonomia zirkularra sustatzea helburu duena. Horretarako, plataforma digital bat garatu du hondakinak sortzen dituzten enpresen eta hondakinak bigarren mailako lehengai gisa berrerabili edo balorizatzeko gai diren erakundeen arteko sinergiak identifikatzeko.

Emaus Gizarte Fundazioaren ekarpena hondakin kudeaketan eta balorizazioan duen esperientzia eskaintzea da, eta baliabideak berrerabiltzeko eta eraginkortasunez aprobetxatzeko aukera berriak identifikatzen laguntzen du.



WEELOOP

TEEHen kudeaketa zirkularrerako sistema berritzaile bat garatu du, sukaldeko plaken materialak eta osagaiak berreskuratzean zentratua, eta % 90eko berreskuratze-tasa lortu da. Balio-kateko funtsezko erakundeek parte hartzen dute, hala nola ECOLEC, Circular Replay, Éxxita, Copreci eta Emaus Gizarte Fundazioa.



Beste erronka estrategiko batzuk



EUSKARA

Gure ingurunearekiko konpromisoak bertako kultura aitortzea eta bultzatzea dakar, eta hizkuntza da kultura horren oinarritzko zutabeetako bat. Horren haritik, Emaus Gizarte Fundazioaren ustez, euskara funtsezko tresna da kohesio komunitarioa, parte-hartzea eta lurralde-errotzea indartzeko.

Etapa berri honetan, Fundazioa urratsak ematen ari da bermatzeko bere eguneroko bizitzan euskararen presentzia lehentasunezkoa eta aktiboa dela, bai barne-komunikazioan, bai kanpo-komunikazioan, bai eta komunitatearekiko lan, arreta eta harremanetarako espazioetan ere.

Horretarako, prozesu espezifiko bat definitu da, eta zeharkako lantalde bat osatzen ari da, euskara erakundean pixkanaka sartzeko bultzatzeko, ikuspegi parte-hartzaile eta partekatu batetik euskararen erabilera eta normalizazioa erraztuko duten dinamikak, tresnak eta ekintzak sustatuz.

BERDINTASUNA ETA EKITATEA

Gizarte justuagoa, kohesionatuagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko, berdintasuna eta ekitatea gure ekintzaren erdigunean jarri behar dira.

Euskararen eremuan bezala, etapa berri honetan prozesu espezifiko bat sortu dugu berdintasuna eta ekitatea sustatzeko eta balio horiek modu organikoan integratzeko erakunde osoan eta kanpoko harremanetan. Prozesu horretarako ere zeharkako talde bat dugu, gaur egun garapen-fasean dagoena.

2025ean, aurrera egin da ildo horretan, Fundazioaren Berdintasunaren Aldeko 2025-2029 azterlana eta plana eginez.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa



KOMUNIKAZIOA: IRUDI BERRIA ETA POSIZIONAMENDU HANDIAGOA

Komunikazioak funtsezkoa izaten jarraitzen du Emaus Gizarte Fundazioak gizartea eraldatzeko eta gizartearen begirada aldatzeko duen misioan.

Aurten, 2024an hasitako berrikuntza-prozesua sendotu da, eta abenduan amaitu da, Fundazioaren webgune berria behin betiko martxan jarrita. Webgune berriak erakundearen egungo estrategiarekin hobeto lerrokatutako posizionamendua du, eta hobetu egin ditu egitura, edukiak eta publiko desberdinekin konektatzeko ahalmena.

Horrez gain, abenduan Fundazioaren nortasun bisuala berritu zen: irudi freskoagoa, hurbilagoa eta gaurkotuagoa sortu dugu, etapa estrategiko berriarekin eta proiektuaren bilakaerarekin koherentea.

Sare sozialek protagonismoa hartzen jarraitu dute herritarrekin komunikatzeko kanal nagusi gisa. Urtean zehar formatuetan eta edukietan berritzen jarraitu dugu, bideoen eta pieza dinamikoagoen bidez batez ere, helburu hauekin: jendearengana hobeto iristea, Fundazioaren posizionamendua indartzea eta modu argiagoan eta koherenteagoan jakinaraztea nor garen eta zer inpaktu sortzen dugun.

Gainera, komunikazio- eta harreman-lan aktiboa egin dugu komunikabideekin, erakundeekin eta inguruko eragileekin, eta horrek Fundazioaren ikusgarritasuna eta onarpen soziala handitzen lagundu du.

125 AGERRALDI HEDABIDEETAN

Telebista: 7

Irratia: 19

Prentsa: 99

18 prentsa-ohar argitaratu dira

13.600 BISITA WEBGUNERA

KOMUNITATEA ETA IRISMENA HANDITZEA SARE SOZIALETAN:

% 15 jarraitzaile gehiago eta irismena % 28 handiagoa

Instagram: 5,4 K

Facebook: 7,7 K

Linkedin: 4,6 K

YouTube: 322

HARREMAN PUBLIKOEN AGENDA ESTRAGIA BERRIA KONTRASTATZEKO

62 bilera

BISITAK GURE INSTALAZIOETARA

19 bisita egin dituzte sektoreko enpresa eta elkarteek


11 bisita egin dituzte ikastetxeetatik

8 bisita, erakundeen aldetik

BILTZARRAK ETA HITZALDIAK

Gure jarduerari eta gure misioari buruzko 18 jardunaldi, hitzaldi, azoka, eta abarretan parte hartu dugu.

2025 iruditan



Emaus Gizarte Fundazioa Pertsonak

GIZARTE-INTERESEKO DATUAK

447

PERTSONA

Kontratatu
Emaus Gizarte
Fundazioan

332 EMAKUMEAK

170 GIZONAK

393 GIPUZKOA

54 BIZKAIA

38 BATEZ BESTEKO ADINA

324


PERTSONA
Fundazioan

123

PERTSONA
laneratze-enpresetan

Gure organigrama


2025EKO ABENDUAREN 31KOA



Sareak



Aliantzak eta erakunde laguntzaileak



eMaUs
GIZARTE FUNDAZIOA

2025
MEMORIA

www.emaus.com

